



# CAMPION, ARANA-GOIRI ETA BESTE

«Nihil novum sub sole» esaten zuten gure aurrekoek. Eta «Fontes» aldizkarian Sodupe-ko *Javiert Granjak* argitara duen artikulua mamitsua irakurtzean (Ikus «Fontes» 43, 155-179), gauza bera errepikatze gogo sortzen da gugan.

Alde batetik, Literatura eta Iraultza bikoteari buruzko iritziak ditugu hor elkarren parean: Sabinorenak eta Campionenak. Jakina: Arana-Goiriren helburu politikoa ez da gaurkoa, zenbait aldetik bederen; nahiz naziotasunaren baiespena gaur baino garbikiago eta ausarkiago agertu. Eta borroka-nahiak, aste hauek eztabaidari buruz, hiper-literatoen kontra darama bilbotarra: «Nunca hemos sentido simpatía por la literatura. Nos ha parecido siempre algo así como postizo, como pura apariencia, pura forma, que carece de un fin práctico, y no sirve más que para recrear la imaginación en los ratos de ocio» (1894). «Pero cuando se le da una aplicación patriótica, entonces ya es una cosa provechosa, laudable y digna de ser estimada por los hombres y los pueblos».

Gaurko hitzez esanda, Sabinok «Euskal Iraultza» nahi du; eta helburu horretan sartzen ez den literatura, desbideragarri zaio; «Se me objetará que, si bien la poesía no es un medio directo de regeneración, es sin embargo de suma importancia, cuanto que mueve los ánimos a investigar los caracteres de la Patria y a ocuparse en sus intereses. A lo cual contestaré que no es necesario semejante prelude, que no estamos para perder tiempo, y que vale más adoptar el medio directo de regeneración por la instrucción y enseñanza de la Historia. Leyes y Lengua patrias; sin que pretendamos negar por esto a la Poesía el papel; aunque accesorio, que en el patriótico movimiento le corresponde».

Sabinok presa zuen, presa handia; eta ez zegoen zeharkako bidetan barrena galtzeko gertu. Zein abertzalek ez du gaur ere (orduan baino bizikiago agian) presa gorri hori senditzen? Benetako sozialisten artean ere, norik ez du ekintza-egarri bizi hori senditzen?

Eta Sabinok, berehala eta gogorki jokatzeko egarri horrek bultzaturik, Hondarribiko biltzarrea sabotatzeko erabakia hartu zuen. 1902an ginen orduan; eta euskal ortografia batu behararen gorria senditzen zuen. Ez bat eta ez bi, 320 «bizkaitar» bildu zituen (o tempora! o mores! horiek ere PNV-koak baitziren!); eta biltzarraren nola edo hala bere ortografi proiektua aurrera ateratzeko deliberoa hartu zuen. «Visceral» haien artean, 293 bizkaitar, borrokarako prest... Puntu askotan, jakina, eta zientziaren aldetik, Campioneak zuen egia; baina abertzaletasunaren dinamika, bestetik zetorren... Ez dizue honek ezer gogoratzen?

Oso interesgarria da, dena dela, Arana-Goirik Campionen kontra zeukan gorrotorearen muina: «desde hace ocho años conoce nuestra doctrina, pero no se le ha ocurrido todavía ser nacionalista» (1901; PNV-a 1893an sortu zen).

Hitz batez: Sabinok «españolizatzat» salatzen zuen Campion. Sabinoren ustez lehenengo puntua hori baitzen: Espainiaren *barruan*, ala Espainiatik *at*?

Hots, Espainiaren *barruan* somatzen zuen Campion; eta horretatik ezinikusi osoa: «la política autonomista, fuerista o regionalista... es tan *extranjera* como cualquier otra de las que tienen vida activa en la nación de España... Tan *extranjera* es el regionalismo como el federalismo, la república zorrillista, la posibilista, la política de Sagasta, la conservadora, el carlismo y el tradicionalismo íntegro» (1889). Zer diote honetaz Uzturrek eta Ibarzabalek?

Javier Granjak ez ditu Sabinoren ideia guztiak gogoratzen, noski. Baina Arana-Goiriren alderditik esaten zaizkigunak entzunda, on izan daiteke Campionen kontrako gorroto hura argitzea.

Arana-Goiriren ustez Euskadirenganako maitasunak, gauzak oraingo honetan daudeno, Espainiarekiko gorrotora darama; eta «erdibide»rik ez dago. Adibidez: «Los euskerianos nacionalistas aborrecen a España, porque ha pisoteado sus leyes patrias, profanado y demolido su templo, y uncido a su patria el yugo de la esclavitud más infame, y está corrompiéndole la sangre, que es la raza, y va a arrancarle la lengua que es el euskera, y acabará por estrujar el corazón del sentimiento nacional». Ez dago hor «sentirse cómodos en España» delakoaren aztarrenik.

Goazen aurrerago: «El odio cordial que nosotros profesamos a España, se funda en el amor igualmente vivo que tenemos a Euskeria, nuestra Patria... (España) está esclavizando a nuestra Patria, y esto nos basta para odiarla con toda nuestra alma... La calamidad de la esclavitud de nuestra Patria aparece más considerable a nuestros ojos que la misma destrucción y asolamiento de toda España».

Cuba Espainiaren kontra altxatzean, horretara, «zorianak» bidali zien Arana-Goirik Cubatarrei: «porque si a esta nación latina la viésemos despedazada por una conflagración intestina o una guerra internacional, nosotros lo celebraríamos con fruición y verdadero júbilo; así como pesaría sobre nosotros como la mayor de las desdichas, cómo agobia y aflige al ánimo del naufrago el no divisar en el horizonte ni costa ni embarcación, el que España prosperara y se engrandeciera». Nola ez txalotuko, beraz, Cubaren independentzia?

Arana-Goirik ez zuen entzun ere nahi «autonomía» hitza: «Sólo diré y aconsejaré no desoigamos las lecciones de la experiencia, que haría infalible maestra es para ser despreciada. Y ¡ay de Euskeria el día que abrazara la autonomía: ese día atraería sobre su cabeza la sentencia de muerte!».

Berriro ere, zer diote honetaz Uzturrek eta Ibarzabalek?

Baina oportunismoa eta españolismoa mila jazerak berriz jantzi diren ustea honetan, beste askori ere egin lekiok galdera bera.

Eta Sabino eta Campion, horretara, uste dugun baino askoz bertago aurkituko genituzke.